

LEHEN HEZKUNTZAKO 3. MAILAKO BARNE EBALUAZIOA



IDAZMEN PROBA APLIKATZEKO ORIENTABIDEAK



3.2. EUSKARA ETA GAZTELANIAZKO IDAZMEN PROBA APLIKATZEKO ORIENTABIDEAK

Idazmenaren ebaluazio honen helburua da, hainbat oinarritzko eta tresna bidezko ikaskuntzaren garrantzia euskara, gaztelania eta ingelesezko idazmen proba baten bidez baloratzea. Ikastetxe bakoitzak bere zirkunstantzia eta plangintzara egokitu eta zehaztu beharko du prozesu hau.

Ingelesezko hizkuntza komunikaziorako konpetentziarako proposatzen den idazmenaren itema, konpetentzia honen entzumen eta irakurmenaren ebaluaziorako proposatutako koaderno baten barruan dagoela gogoraraztea komeni da.

Egiatzatu ahal denez, hiru hizkuntzetako bakoitzean testuak horietako bakoitza zuzentzeko eskaintzen den errubrika edo irizpideen taulan, testuak ebaluatzerakoan aintzat izan beharreko alderdi gehienak berberak dira, eta hizkuntza bakoitzari lotutako berariazko irizpide batzuk baino ez dira bereizten.

Euskara eta gaztelaniazko idazmen probaren antolaketa

IDAZMEN PROBA	HELBURUA	PROZEDURA	TRESNAK	DENBORA
Proben aurkezpena				1-3 minutu
AGURRA ETA EGITEKOAREN AZALPENA				5 minutu
IDAZMEN LANA EGITEA	Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleei idazmena ebaluatzea	Maila honetako ikasleentzako ebaluazio unitatearen eredia proposatzen da	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ikaslearen ebaluazio koadernoak ✓ Ebaluazio irizpideak ✓ Maila ezberdinen ereduak ✓ Emaitzak erregistratzeko txantiloia 	20 min

• Proba prestatzea

- Sailean, zikloan edo mintegian hizkuntza bakoitzerako lan proposamena elkarrekin aztertu, ISEI-IVEIk hizkuntza bakoitzerako prestatutako agiria (testu mota, idazlan bakoitza egiteko emandako kontsigna, zuzenketa irizpideak, testuen adibideak...) erreferentziatzen hartuta.
- Beharrezkoa balitz, zonako Berritzeguneari egiteko honi buruzko informazioa edota aholkularitza eskatu.
- Probak aplikatu baino egun batzuk lehenago, proba horiek egingo direla jakinarazi eta, egoki iritziz gero, ikasleei emaitzaren baloraziorako erabiliko diren zuzenketa irizpideak gogorarazi eta horiek landu.

- **Hizkuntza bakoitzean egingo den egunean**

- Ikasleei, proba honen zentzua eta helburua, zein emaitzak, ikastetxean erabakitakoaren arabera, idazmeneko konpetentzian duten mailari buruzko informazioa lortzeko erabiltzen dela azaldu
- Testua idazteko kasuan-kasuan ematen den kontsigna irakurri, ikasle guztiek egin beharreko lana zein den argi izan dezaten.
- Proba egiteko duten denbora, zein gutxienez idatzi behar duten hitz kopurua jakinarazi.
- Proba amaitzeko denbora amaitu baino bost minutu lehenago, amaitu behar dutela eta idatzizko testua berrikusteko esan.
- Idazlanak jaso eta aplikazioa amaitutzat eman.

- **Idazlanak zuzentzea**

- Lan honetarako izendatutako ikasleek testuak zuzendu.
- Barne eztabaida eta hausnarketa, posible bada, zuzenketa prozesu honetan inplikaturik egon diren gainerako irakasleekin, informazioak alderatu eta ondorioak ateratzeko.